

KONTUZ ALDATZEN

ALDAMU, HESI ETA KONTENEDOREEKAZ KALEA HARTZEARI BURUZKO UDAL ARAUDIA

Kalea, aldamu, hesi eta kontenedoreekaz hartzea arautu nahi dau Araudi honek.

Gero eta gehiago dira, eraikuntzetako fatxadetan egiten diran lanak, Udala ere barruan dala, erakunde ezbardinek lan moeta honeei emoten deusiezan diru-laguntzen ondorioz, alde zaharrean bereziki, lan honeek ugaltzen joango dirala uste dalarik.

Kalera begira egiten diran lanak izanik, aldi baterako pribatizazio bat suposatzen dabe, batetik, eta, bertatik dabilzanentzat eta bertako gauzentzat ere arrisku bat, bestetik, Udal Administrazioak jagon hebar daualarik, beti, guztien ziurtasuna eta babesa eta baita harrera hori kontrolatu ere.

Udalaren orain arteko kontu hartzea ez dala egokia izan ere, esan beharra dago. Aldamuak ea hesiak jarri beharra egon danean ere, sarritan, eragileen kontura izten zalako euren izaera, ezaugarriak eta abar erabakitzea.

Horregatik, beharrezkoa da, herritarren ekintza horreetan Udalaren eskumenari buruzko erizpide batzuk ezartea, Udalen Zerbitzu Araudiaren 1.1. artikuloren arabera horretarako Udala legez baimenduta dagoanez gero.

Horretaz ari da Araudi hau, kalean sarri egiten diran beste mota bateko hartzeak ere arautzen diralarik, obra pribatuetako hondakinentzako kontenedoreak jarri eta garraiatuz egiten diranak, esate baterako. Guztiz nabari dogun beste arazo bat ere, oraintsu obra-kontralistek erabiltzen daben obra hondakinen biltze sistema eta zabortegirako garraioa izango litzateke.

Azkenik esan, Araudi honek ez daukala hirigintzazko izaerarik, nahi dauana, zainketa ba Udalak eroatea dala, baizik, Toki Erregimeneko Oinarrien Legearen 49. artikulok ezarritakora egokituko dalarik bere tramitazioa.

Beraz, ondorengo onartzen da:

ALDAMU, HESI ETA KONTENDOREEKAZ KALEA HARTZEARI BURUZKO UDAL ARAUDIA

I. ATALA

AURREKO XEDEA

1. artikulua

Eraikuntzen kanpo nahiz barruko egokitza lanak eta baita lurreratze edo eraikitza obren ondorioz kalean jartzen diran aldamu, hesi edo kontenedoreak arautzen dauz Araudi honek, baita, honeen izaera eta ezaugarrietako obra publiko edo pribatuetan jartzen dan beste edozer ere.

Obra publikoetan nahe pribatuetan ezarri ahal izango da.

2. artikulua

Aldamu edo hesirik jartzea Udalak beharrezkotzat hartzen ez dauzan barruko obretan, euren izaeraren arabera, ez da Araudia ezarriko.

Kontenedoreak jartzearek buruz, lan txikiak izanik jarri beharrik ez dagoanean ere, ez da Araudia ezarriko.

II. ATALA ALDAMUAK

3. artikulua

Espaloiak edo orokorrean kalea aldamuekaz hartzea, Eranskinean agertzen diran grafikoen arabera egin beharko da, derrigorrez bete beharko dalarik, jagokon justifikazio eta soluzio grafikoan aurkezturik aztertu eta erabakiko diran kasu bereziak izan ezik.

4. artikulua

1. Espaloi gainean, hiru metrotik beherako altuerarik izango ez dauan, babes oholtza jarriko da, egoera onean dagozan oholekaz, behar dan moduan lotuta eta beharrezkoa balitz, langilegoa sartu eta urten egiteko atetxo batez. Sarbide hori, itxita geratuko da lan orduetatik kanpo.

2. Babes oholtza horren aurre eta albo guztiek, goitik beherako karel bateratua eta kanpo aldetik leuna jarriko da metro bitik gorako altueraz, horren barruan sartuko dalarik aldamuak eskegiten diran ziurtasun pantaila.

Neurri txikiagoak izanik, oholtza horrek, espaloiaren ertza gaindituko balitz, behean dagoan elementua, ezin izango da galtzadako sestratik lau metro baino gitxiagotara egon.

5. artikulua

Materiale edo lanabesak jaustek kalterik eragin ez daian, ziurtasun pantaila jarriko da aldamen altuera guztian, behar dan moduan erriostatuturik haizearen bultzadak jasateko behar lirateken neurriak hartu beharraren kalte barik.

6. artikulua

Egitura, modulo edo alboetako elemendueetatik alboetako etxaurreetara heldu ez daitezkan, babes-oholtzaraino, ez dabe mailadirik izango.

7. artikulua

Egituraren buru bakoitzean eta lurzorutik metro bitara, argi gorria jarri beharko da, biztuta egon beharko daualarik gaua egiten danetik goiza egin arte.

8. artikulua

Egitura guztiak bete beharko dauz, lanean ziurtasuna eta osasunari buruzko legezko xedeak. Arketak, ur hartuneak, ureztatze ahoak, gasa, elektroindarra, telefonoa etab. publiko edo gutztientzat interesekoak diran zerbitzuetara helbide normala galerazi edo eragozten ez dauan moduan egingo da.

9. artikulua

Aldamuak eragina daukan gune guztian, ez da obrako hondakin, materiale edo langairik egongo.

10. artikulua

1. Bidean edo kalean aldamera jartzea, eukitea edo kentzeak eragindako edozein kalte, baimendutakoak konpondu beharko dau.

2. Inori gertatzen jakozan kalteak, baimendunaren erantzunkizunekoak izango dira, aseguru bidez hoenelako arriskuak beteta izan beharko dauzalarik.

11. artikulua

1. Obra lizentzia eskariagaz batera egingo eta tramitatuko dira aldamerak jartzeko eskariak ere.

2. Eskaria egiten ez dan kasuan, jartzea beharrezkoa balitz, Udalak, aldamera jartzea aginduko leuke, obra lizentzia emoteko erabakian baldintza lege agerturik.

12. artikulua

Ondorengo agiriak aurkeztu beharko dauz eskatzaileak:

a) Alkateari zuzendutako eskaria.

b) Aldamua jarriko dan espaloia ren plano a. Behar dan moduan mugatuta eta bertan legokezan gauza guztiak agerturik: arketak, erregistroak, hidranteak, argiak, zuhaitzak, buzoiak, semaforoak, etab.

c) Aldamu erduaren zehaztasunak, ezaugarriak eta aurrekontua. Bere ziurtasunaren erantzunkizuna hartuko dauan Zuzendari Teknikoak guztia izenpeturik.

13. artikulua

Aurreko eskaria jagokozan agiriekaz batera, Udal Teknikariak informatuko dau, eta Hirigintza Batzordeak diktamena emon ondoren, Alkatetzara eroango da, erabakia hartu daian.

Baimena, obra amaitzen danean edo emondako lizentzia balio-gabetzen danean desagertuko da.

Obrak amaiturik, hartutako ezpaloia edo kalea, hutsik eta aske geratu beharko da, egoera onean eta inolako ezabaketa barik.

Obrak amaitu ondoren, instalazioa kenduko ez balitz, lizentzia jabearen kontura egingo leuke ordez Udalak, jagokozan zigorrak jartzearen kalte barik.

III. ATALA HESIAK

14. artikulua

1. Eraikuntza barrietan, behetietako etxaurreen egokitze lanetan, orubeak ixterakoa, eta Udalak ziurtasun arrazoiekaitik horrela erabakitzen dauan bakoitzean, babes-hesiak jarri beharko dira, Araudi honetan ezarten diran erizpideen arabera.

2. Beti ere, eta ahal balitz, hesiak, jabego pribatuaren mugartean jarriko dira, zoru publikoa hartu barik.

15. artikulua

Hesiak, ondorengo ezaugarrietakoak izango dira:

a) Metro bitako altuera izango dabe gitxienez.

b) Gogor jarritako beste edozein materiale moeta edo ta zuriz margotutako eta xehetutako makilerdiaren lodierako aderiluz eraikita egongo dira, behar diran ziurtasun eta apaindurak bermatuz.

c) Kalearen zabalerak emoten dauan lekuan, etxaurretik metro bitan egongo dira. Gainontzeko kasuetan, Udal Teknikariek ezarritako lekuan.

d) Hesiaren ate edo atea, barrurantz zabalduko dira, zuririk margotuta egongo diralarik, hesiaren altuera berean, ziurtasun eta apaingarritasun baldintza egokietan.

e) Ziurtasun, itxura, apaindura eta kalearen babes baldintza egokiak beteko dauz.

16. artikulua

Obran erabili behar diran materiale eta lanabes guztiak, hesiaren mugartean jarriko dira.

17. artikulua

Hesientzat, Araudi honetako 1. artikulua 2. esan multzoa, 2, 8, 9, 10, 11, 12. artikuluko a) eta b) puntuak eta 13. artikulua izango dira ezargarriak.

IV. ATALA KONTENEDOREAK

18. artikulua

Baimendutako hesiz mugatu ez dan kale zatiaren, obra materiale moeta guztiak izteko edo ta tresnak eta aparatuak jartzeko erabilpena debekatuta geratzen da, izaera orokorrez.

19. artikulua

Obra baten hondakinak biltzeko, kalean kontenedoreak jartzeko baimena emon leike Udalak, beti ere, obra horren muga barruan ezinezkoa geratu ezker.

20. artikulua

17. artikuluan ezarritakoa izango da aplikagarria.

21. artikulua

Hogei ta lau ordu baino gehiagotan ezin izango dira kontenedoreak betetea egon, eta gitxiago ere, euren barrukoa dariola egon ezker.

Jagokezan zigorrez kanpo, Udalak, obra lizentziadunaren kontura hustu leikez, orde.

V. ATALA ZIGORRAK

22. artikulua

Araudi honek dinoana ez betetea, Alkatetzak zigortuko dau, 1986ko apirilaren 18ko Testu Bateratuaren 50. artikulua ezarritako Toki Erregimeneko mugekaz, jagokon espedientea zabaldu ondoren, lege-haustearen larritasuna izan beharko dalarik kontutan zigorra jartzeko orduan.